PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA

Cáritas
caritas.es

@_CARITAS
facebook.com/caritas.espanol
@caritas_es
youtube.com/caritasespanola

“Eta nik emanen dudan ogia nire gorputza da, mundua bizi dadin emana” (Jn 6, 51)

Cáritas
caritas.es

KARITATEA OSPATZEA ITXAROPENA OSPATZEA DA

"JAINKOA GUREKIN DAGO: HAU DA GURE ITXAROPENA. HARK EZ GAITU INOIZ BAKARRIK UZTEN" [1]

CORPUS CHRISTI JAIAK, KARITATEAREN EGUNAK,

kristau-bizitzaren erdigunean jartzen gaitu eta *Jainkoak anaia eta arreba bakoitzarenganako duen errukiaren lekuko egiten gaitu.*[2]

Eukaristian, karitate bihurtzen gara, eta Jesusekin bat egiten dugu, maitatzeko eta zauriak sendatzeko eta zaintzeko, batez ere bakardadean eta pobrezian bizi direnen zauriak, gaixorik daudenenak, eta zuzentasun eta duintasun egarri gehien duten haienak.

PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA.

Kontua ez da heroi bihurtzea, ezta inor salbatzea ere, baizik eta bizitza elkar maitatuz igarotzea. Kontua da barruan daramazun on guztia argitara ateratzea: eskuzabaltasuna, ulermena, zure irribarrea, zure trebetasunak, zure dohain guztiak.

PENTSATU AL DUZU INOIZ ZU ERE JAINKOAREN MAITASUNAREN ISLA IZAN ZAITEZKEELA?

[1] FRANTZISKO, 2013ko apirilaren 2ko homilia.
[2] BENEDIKTO XVI.a, exhortazio apostoliko postsinodala *Sacramentum caritatis* (SCa).

ZURE KEINUAK ITXAROPENA BULTZATZEN DU

EGIN EZAZU OTOITZ BESTEEN ALDE ETA BESTEEKIN.

Ez gutxietsi otoitzaren indarra. *"Bi edo hiru lagun, nire izenean bildurik daudenean, han nago ni haien erdian",* dio Jesusek. Bilatu isiltasuna, otoitz egin eta begiratu. Beste batzuekin otoitz egiteak gure fedea handitzen du.

ENTZUN EZAZU BIHOTZAREKIN, EZ EPAITU.

Enpatiaz entzuteak itxaropena itzul dezake, eta beste pertsona bat ikusezintasunetik eta tristuratik atera.

PARTEKA EZAZU ZURE FEDE-ESPERIENTZIA, IZAN ZAITEZ ITXAROPENAREN LEKUKO.

Zure bizitzak beste pertsona batzuk animatu eta inspiratu ditzake. Itxaropena bihotzetik sortzen denean kutsatzen da.

HITZ EGIN EZAZU HITZ POSITIBOAK ETA KONSTRUKTIBOAK ERABILIZ.

Itxaropenez hitz egiteak eta beste batzuk egoeren alde ona ikustera bultzatzeak giroa eta perspektiba hobetzen ditu.

HAR EZAZU PARTE BARNE-SENDAKUNTZAKO ETA ADISKIDETZEKO GUNEETAN, FEDEA, BIZITZA ETA KONPROMISOA PARTEKATZEKO TALDEREN BATEAN.

Bakea eta sendaketa ez dira iristen beren kabuz, bilatu eta landu egin behar dira.

OSPATU EZAZU BIZITZA ETA PIZTUERA ALAITASUNEZ BETERIK.

Eman eskerrak bizitzagatik eta izan zaitez bakearen eta pozaren lekuko.

NOLA LAGUNDU DEZAKEZU ITXAROPENAREN ENBAXADORE IZATEN, FAMILIAN, LANEAN, BIZITZA SOZIALEAN, ZURE BIZITZAKO EDOZEIN ESPARRUTAN?